



Ogasuneko Langile Euskaldunen Taldearen berripapera

Taldearen nondik norakoak

Kaixo lagun! Azkeneko bolada honetan zertan aritu garen eta hemendik aurrera zeintzuk diren gure asmoak azalduko dizkizugu. Gure taldearen berri emate arren **Ogasun eta Finantza Departamentuko zuzendari nagusiekin** bilera bat izan dugu. Bertan taldearen berri eman genien, gure jarduna ezagutzera eman eta gure kolaboraziorako asmoa azaldu.

Elkarlanerako gure eskaintza onartu eta **departamentuko hizkuntza ofizialen erabilera planean parte hartzeko** aukera eman digute. Hemendik aurrera Taldeko partaide bat izango de euskara batzordean. Honela, planaren bilakaera eta lan ildo jarraitu ahal izango dugu, eta jakina, ahal dugun neurrian lagundu.

Joan den urtarrilean abian jarri genuen partaide berriak egiteko saioa. Egondako oposizio eta hauteskunderen ondoren egoki iruditu zitzaigun sartu diren lankide eta kargu politiko berriei taldeko partaide izateko gonbitea egitea. Saioa dela medio, gaur egun **160 lankide inguru bilduta gaude Langile Euskaldunon Taldera.**

Urteko bazkariaren garaia ere iritsi zaigu. Iazko bazkarian lortu genuen giro ona galdu ez dadin, eta elkar ezagutzeko aukera ezin hobea dela ulertzen dugulako, aurten ere bazkaria antolatu dugu. Martxoaren 13an izango da, iaz bezala, Urkiola sagardotegian.

BI PROIEKTU BERRI jarri ditugu martxan.

Hizkuntz ohituretan eragiteko proiektu bat martxan jartzea erabaki dugu. Helburua de lankide euskaldunon artean euskaraz egiteko ohitura finkatzea. Denok somatzen dugu euskaldunok ere, eta inertiaren ondorioz, sarritan hizkuntza aldatu eta gaztelaniaz aritzen garela. Hurbileko esperientzia konkretuek erakutsi digute hiztun euskaldunen artean euskara ohiturazko hizkuntza bezala berreskuratzea uste baino errazagoa dela.

Langile euskaldunon taldearen esperientzia Aldundiko beste lantokietara eramatea da gure beste proiektua. Horretarako Foru Jauregian kontaktuak jorratzen ari gara gure asmoa agertu eta aurrera eramaten laguntzeko. Gure helburua beste lantokietan ere Ogasunean bezala langile euskaldunen taldeak sortu daitezela da.

Hauexek dira taldearen orain arteko nondik norakoak. Badakizu zure ekarpenak ongi etorriak izango direla Xuxurlan edo Errotanberbetan gure blogean testurik argitaratu nahiko bazenu.

Ondo izan eta laster arte!

***Sagardotegira!!!
Martxoaren 13an
Anima zaitetz!!!
Etzazu galdu!!!***

Auzoa ezagutu


Aingeru Zaindariaren festak datoz urtero bezala Ibaetara. Martxoaren 1, 2, 6, 7, 8, 9 eta 10ean izango dira.

Urteroko ohiturari jarraiki Aingeru Zaindariaren ermitako erromeriak emango dio hasiera jaiari. Bertako kutsua duten festak dira eta azken urteetan Aitor Zabaleta plazan eta Lautximeneta frontoian egiten dira ekintza gehienak. Gure ondo-ondoan ditugu bi toki hauek.

Ez dira aurten ere faltako bertsolariak, trikitixa, txokolatadak, haur, jolasak eta nola ez "Gorriti Show" xelebrea, bere abere eta jolasekin. Gure auzoko bizitza eta jendea ezagutzeko aukera aparta.

Ez gara ba lanera bakarrik etorriko!





Euskararen munduan albisteak

NORA EUSKAL HERRIA euskarazko lehen bidaia aldizkaria kalean da.

EUSKAL HERRIA aldizkaria eta BERRIA egunkariaren arteko elkarlanaren ondorioz sortu da aldizkari berria hau. Otsailean atera da lehenengo alea eta hileroko maiztasuna izango du. Irudi ikusgarriak eta kalitate handiko argazkiak eskeintzen ditu. Euskal Herriko bazterretan murgiltzeko ideia mordoa eskeintzen ditu Norak.

Nora hilabetekariak 6 ataletan banatua dago: gai nagusia, zenbakien bidez lurraldeak ezagutzeko artikulua, 4 ibilbide fitxetan, Euskara Bidaide izeneko atala, ilustrazio etnografikoaren tartea eta argazko ikusgarri baten probokazioa. Adibidez, lehenengo zenbaki honetako gai nagusia "Pirinioetako ibilbide historikoak" da. Zenbakiak gidari gisa izango ditugu "Urdaibai deskubritzeko 7

bide" artikuluan. Eta Irudi etnografikoa "Oiasso portu erromatarra"k ekarriko digu.

Euskararen aldetik interes berezia duen atala Euskara Bidaide izenekoa da. Horrela 12 bidai prestatu dituzten Noran euskara bidelaguna dugula. Euskararekin harreman estua duen toki bat ezagutzera ematea da atal honen helburua. Lehenengo Noran Barrundia bailara bisitatuko dugu Joan Perez Lazarraga eta gure errenazimenduaren bila.

Teknologia

Sakelekoak euskaraz!!

Eusko Jaurlaritzak telefono enpresekin akordioa sinatu du telefono mugikorrek euskaraz erabili ahal izateko. Zenbait ekoizle (Alcatel, Nokia, Samsung, Sony Ericsson...) eta zerbitzu hornitzaileekin (Euskaltel, Eroski, Telefonica, Vodafone, Yoigo...) iritsi da akordio honetara. Orain arte bezeroaren arreta bakarrik eskeintzen zuten euskaraz telefono enpresek, eta ez guztiek gainera. Hemendik aurrera telefono mugikorra bera, bere menu eta baliabide guztiekin, erabili ahal izango dugu euskaraz.

Gabonetarako Eroski eta Euskaltel hornitzaileak behintzat hasi ziren zerbitzua eskeintzen. Telefono ekoizleei dagokienez Motorolak W377 eta Nokiak 2630 modeloak atera berri dituzte. Hizkuntza aukeratzeko euskara, katalana eta galiziera eskeintzen dizkigute. Argi ibili baina, idazkera korearra edo zirilikoa aukeratuz gero ezingo dugu atzera nola egin asmatu eta.

Eskerrak

Eskerrik asko Xuxurlaren bigarren zenbaki hau ateratzen lagundu duzuen guztiei. Zuen ekarpenak bihotzez eskertzen ditugu. Eskerrak bereziki **Koro Arratibel**-i bere diseinu dotore eta ederrengatik.

Mila esker guztioi!!!

Gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, idatzi e-postako mezua hona:

langileeuskaledunok@gipuzkoa.net

Nahi duzunean gure bloga bisitatu dezakezu:

<http://errotanberbetan.nireblog.com/>